

Aranoko inauteriak inauterien dataren azkenurreko larunbatean ospatzen dira. Goizean goizetik herriko auzo eta baserrietatik ibiltzen dira zomorroak puska biltzean. Puskak ematen dizkieten etxe guztietan dantzatzeko dira: fandangoak eta porrusaldak. Eguerdia ederki pasatuta, talde osoa edo gehiena herriko soziedadera hurbiltzen da eta bazkaldu eta gero, arratsaldeko seietan edo, Zahagi dantza egiten dute herriko kaleetan barrena. Goizean puska biltzean ibilitakoei, herrian geratu diren hainbat neska-mutiko gehitzen zaizkie. Bi talde osatzen dute: nagusiak (neska-mutilak, gizon-emakumeak), segizioaren atzekaldean jartzen direnak, eta mutiko-neskatikoak, aurrekaldean.

Musikarekin Goiko herria kaletik behera abiatzen da dantza taldea Paula Enea etxeraino. Hor egin zuten zahagi dantzaren lehen ekitaldia. Parte hartzaileek uzten dituzte makilak lurrean, gutxi gora behera toki berean eta korro batean dantzatzeko dira fandangoa eta porrusalda. Hori bukatuta hasten dira bals bat dantzatzeko. Behin hasita eta edozein momentuan bi zomorro sartzen dira dantzari taldeari molestatzeko, ziria sartzen eta halako antzezpen bat egiten. Kalearen bazter batean utzi dute zahagia. Balsa bukatzen denean zahagia hartzen dute eta hasten da zahagi dantza. Zomorro txuriak bi lerrotan jartzen dira makilekin halako "arku" bat sortzeko. Zomorro beltzak bi lerroen artean kokatzen dira bata besteari aurretik. Aurrean dagoenak zahagia darama eta atzean dagoenak makila bat. Zomorro txuri bakoitzak bere parean dagoenarekin jotzen du bere makila musikaren erritmoa eramanez. Bitartean zomorro beltzak, musikaren erritmoa jarraituz, atzera eta aurrera mugitzen dira bi lerroen artean. Musikak hala agintzen duenean txuriek behera jotzen dute beren makilekin. Suertatzen bada hor dagoela zahagia daramana, zahagiari jotzen diote. Bestela, lurrera. Azken kolpea eman eta beltzak korrika ateratzen dira aurrerantz bata besteari atzetik, etxeetatik desagertuz.

Konpartsa aurrera jarraitzen du musikaren soinuarekin (biribilketa) hurrengo tokiraino.

Hau guztia lau aldiz egiten da: Hiru Goiko Herria kalean eta laugarrena frontoian. Bukatzen denean dantzaldia hasten da eta fandango eta porrusaldak dantzatzeko dira. Ordurako, herriko jendea bildu da. Goizeko ibilaldia zomorroek bakarrik egiten badute, arratsaldeko ekitaldia ikusleak ditu.

Zomorro beltzek egiten duten antzezpena hauxe izaten da: Harreman sexualak izan dituzte eta haurdun geratu da horietako bat (neskarena egiten duena). Batak bestea zaintzen du, elikatzen du. Azkenean, frontoian, erditzen du. Horretarako bat emakumez zomorrotu da eta bestea gizonaz.

### **Azalpen historikoa:**

Frankismoaren garaian ezarri ziren debekuen gaintik mantendu ziren Aranoko inauteriak (iñotiak) . Orain egun bakarrean ospatzen badira ere, aspaldian igandetik eta “astiarte inaute” arte ospatzen ziren. Zahagi dantza, esan bezala, asteartean egiten zen. Goizeko giroa eta eginkizunak bertsuak ziren lehen eta orain. “Dantzariak bere emanaldia amaitzen duten unean, taldeko zomorrotu bat, ezpata bat daramala zagia eramaten duen gaztearen atzetik doa. Honek besteak zagia bere armarekin ukitzea ekidin behar du. Horretarako hurbilen dagoen etxera korrika doa, etxe horren atalasea ezin baitu ezpataduna zanpatu. Etxe barruan, bere zorioneko ekintza zahagia leihotik bere lagunei botatzen ospatzen du; eta denbora galdu gabe, zahagi hartuko du eta makil dantzarien artean duen tokia hartuko du. Kontrara, ezpatadunak zahagia ukitzen badu, antzespina mozten da eta koadrilak zahagia dantzatzen jarraitzen du herrian zehar. Zahagi dantza plazan bukatzen da, hor egiten baita Astiarte Iñaute eguneko dantzaldia. Libertimendu publiko hau, aintzinean zortzikoa dantzarekin hasten zen eta amezkille jo arte luzatzen zen

### **Mozorro txuriak:**

Galtza eta atorra txuriak janzten dute. Sorbaldaren goikoaldetik eta sorbaldaren zabalera guztia hartzen duten 8-12 arteko koloretako zintak daramatzate zintzilik. Luzera ere mozorro bakoitzaren arabera dira: batzuenak ez dira gerriraino heltzen, beste batzuenak gerriraino, beste batzuetan beherago. Luzeenak belaunaren atzekalderaino. Zintak zabalera ezberdinetakoak dira ere bai.

Galtzak aipainduta daramate. Belaunetik beherakoa brodatu eta galoiarekin apaintzen dute. Kasu batzuetan brodatua ez dago galtzaren gainean egina, baizik eta beste oihal batean eta hau prakari josita. Galtzek ere ponpoiak edota txintzarriak eraman ditzakete.

Azkenik, buruan txapel gorria eta kirtenatik zintzilik, koloretako xingolak edota ponpoiak.

Batzuk blusoia ere daramate, loreduna eta kolore argitan eta lepoan zapi gorri bat.

Atorra ez dago apainduta, baina ezkerreko basoan denek daramate xingola gorri bat.

## **Garapena:**

“Mutil gazte horietariko batzuk txapel eta blusa beltzak janzen dituzte, *galtza zurik galtza zurik zankotan zearka kolore askotan bordatuk*. *Esparzin zurik oinetan oingainak brodaturik dutenak*. Lepoan *lepoko pañuelo gorria*.

Beste gazte batzuek emakumezko jantzia dute gustoko. Taldean ere hamar bat *dantzarik* dago, txapela eta *gerriko* gorriak daramatzatenak; alkandora, galtza eta esparzin zuriak, esandako moduan brodatuak.

Galtzaren kanpoko josturan, belaunetatik txorkatileraino, hainbat *kaskabilok* dago.

Dantzari hauen alkandoraren sorbaldeetatik zintzilik, kolore anitzetako xingolak bizkarrean eta bularraldean zabaldua. Mauka eta sorbalda biltzen diren tokian artilezko ponpoi edo borla *kaskabiloduna* nabarmentzen da.” (Garmendia Larrañaga, 1984, 13).

Lehen zomorro zuriz jantzita zeudenak dantzariak ziren, hau da, gero Zahagi dantza egingo zutenak. Orain zomoro gehienak zuriz janzen dira eta ez dira, derrigorrez, dantzariak izan behar.

Zahagi dantzariaren jantzia ere aldatu egin da. Garmendiak zioen “aurpegia belzturik eta blusa beltzezko zomorrotua” bat zela Egun, ikusi dugunez, bi dira eta bat emakumez eta bestea gizonez zomorrotuta daude.

Zahagia bera ere aldatu da: lehen “gazte batzuen artean birikaz puztutako zagia” zen eta orain zaku bat da.

## **MUSIKA**

Musikariak: Trikitilariak

Soinu tresnak: Trikitia eta panderoa

Lehen “txistu eta danborrarekin” egiten zen, baina aurreko mendearen 80ko hamarkadan jada, “kordeona ta panderua” jotzen zen. Gaur egun, trikitrixa eta panderoa.